elkarberri

72

FisioTopaguneak

Colegio Oficial de Fisioterapeutas del País Vasco

Euskadiko Fisioterapeuten Elkargo Ofiziala

2021eko urria - abendua / Doako alea

Lege-Gordailua: BI-945-05 - ISSN 2444-4065

ZURE SEGURTASUNA, GURE KONPROMISUA

Lasai egon ahal zara: Fisioterapia Zentro batean sartzen zara

HEMEN: COfpVID pLANa

Colegio Oficial de Fisioterapeutas del País Vasco

Euskadiko Fisioterapeuten Elkargo Ofiziala

Edorta Ansoleaga
Vocal del COFPV
EFEO-ko batzordekidea

editoriala

Osasun publikoaren alde.

Fisioterapia ez da mendebaldeko herrialderen batean intrusismo profesionalaren maila onartezinak dituen osasun-lanbide bakarra; beste kolektibo profesional batzuek ere, hala nola podologiak, psikologiak edo erizaintzak, gaitz hori jasaten dute. Hala ere, uste dut ez dudala esajeratzen esaten badut fisioterapiak dela egoera amorragarri hori gehien pairatzen duen lanbidea.

Elkargo profesionalek osasun-intrusismoaren aurka egiten duten borrokan pentsatzen dugunean, kolektibo jakin baten (gure kasuan, fisioterapeutena) eskumen profesionalak babestera bideratutako ekintza gisa aztertzen da. Hori helburuaren zati bat baino ez da; izan ere, osasun-arloko intrusismoaren aurkako borroka, funtsean, "osasun publikoaren alde" egiteko borroka da. Herritarrek osasun-langile kualifikatuen zerbitzuak jasotzeko duten eskubidearen defentsa da, giza kalitateko eta kalitate zientifiko-teknikoko osasun-laguntza bermatuz, baita arreta segurua ere, adostutako eta eguneratutako segurtasun klinikoko protokoloetan oinarritua.

Fisioterapiak, herrialdeko osasun-profesional guztien parte gisa, funtsezko rola du, geroz eta garrantzitsuagoa, herritarren osasuna zaindu eta berrezartzeko orduan. Bistakoa da lanbidearen garrantziak gora egin duela, eta harro egon behar dugu gure lanbideak barne hartzen dituen alorretan egin ditugun aurrerapen handiez. Arnas-patologien, patologia onkologikoen, obstetrikoen, uroginekologikoen, paziente ahulen eta ariketa terapeutikoarekin lotutako patologien tratamenduaren garapena, fisioterapia inbaditzailearen gorakada edo gure lanbideak Covid iraunkorra pairatzen duten pazienteen zaintzan eta sendatze-prozesuan duen funtsezko rola egindako aurrerapenen adibide batzuk baino ez dira.

Gure lanbideko aurrerapen horiek eragin positiboa izan dezaten osasun publikoan, osasun-administrazioak intrusismoaren aurkako borrokan aurrerapausoak eman behar ditu, baita justizia-administrazioak ere (kasu penaletan).

Osasun-administrazioari dagokionez, patologiak tratatzen dituzten eta osasun-prestakuntza ofizialik ez duten pertsonak (hau da, intrusoak),

HEGAZKIN ETA ITSASONTZIETARAKO GAITASUNEN NAZIOARTEKO ESKOLA

HEGAZKINAK LURRERATZEKO IKASTAROA

6 hilabete besterik ez

Etorkizuna zure esku. Ikastaro honi esker, krisialdia hegan joango da.

Matrikulatzeko epea irekita dago

Praktikak konpainia onenetako hegazkinak lurreratuz, bidaiariekin eta bidaiaririk gabe.

Gidari uniformea galoiekin eta txapela oparitzen ditugu matrikularekin.

Sinesten duzu?

Orduan, zergatik sinesten duzu masaje eta teknika sanitarioen funtsik gabeko ikastaroei buruzko informazioa?

Masaje, kiromasaje, erreflexologia, akupuntura, osteopatia, fisio-estetika eta halako modalitateetako ikastaroek ez dute balio akademikorik eta ez daukate aitorpen ofizialik. Masaje terapeutikoa fisioterapiaren barneko konpetentzia da, eta ez da osasun-esparrutik kanpo aplikatu behar. **Ez zaitzatela engainatu!**

Espetxe-zigorrak jaso daitezke osasun-arloko profesionalen ordez lesioak sendatzen saiatzeagatik eta unibertsitateko titulazio ofizialik gabe fisioterapeuta-lanbideko teknikak erabiltzeagatik.

ANTES DE RECIBIR UNO DE ESTOS CURSOS INFÓRMATE EN EL EUSKADIKO FISIOTERAPEUTEN ELKARGO OFIZIALEAN

944 020 155 cofpv@cofpv.org

eke
EUSKADIKO KONTSUMITZAILEEN ELKARGOA
FEDERACIÓN DE CONSUMIDORES DE EUSKADI

Colegio Oficial de Fisioterapeutas del País Vasco
Euskadiko Fisioterapeuten Elkargo Ofiziala

IDEA ORIGINAL DE YRG Y DE FISIOTERAPEUTAS

osasun-langileak ez diren heinen, ez dira administrazio horren eskumenetan sartzen; eta, ondorioz, arazoa beste sail batzuen esku uzten dute. Bistakoa da osasun-langileak ez diren pertsonek patologiak jorratzea, funtsean, “osasun publikoko” arazo bat dela, eta, beraz, beren burua “osasun publikoaren” arduraduntzat dutenek ez lukete alde batera utzi behar eta beraiei ez dagokien gai bat balitz bezala tratatu.

Arlo judizialean, epaileek mota guztietako epaiak eta zigorrak ezartzen dituzte fisioterapiako intrusismo-kasuetan, eta batzuetan herritarren osasuna eta fisioterapeuten eskumenak babesteko sentsibilitate urria erakusten dute. Ez da politika egokia norbait lesionatu arte itxarotea osasun-intrusismoagatik pertsona bat penalki zigortzeko; lehenago jokatu behar da, kasu tamalgarri –eta ekidin daitezkeen– horiek prebenitzeko.
Hala ere, aurrerapen esanguratsuak egin dira intrusismoaren aurkako borrokan, eta herritarrak eta gure lanbidearen eskumenak babesten dituzten ebazpen garrantzitsuak lortu dira. Baina, zalantzarik gabe, osasun publikoaren aldeko borroka hori herritarrek merezi dutena baino motelagoa da.

Fisioterapeutak gure eguneroko ahaleginarekin osasun publikoan lortzen ari garen aurrerapen handiarekin batera, parte-hartze handiagoa behar da osasun-intrusismoaren aurkako borrokan, osasun publikoko eta justizia-administrazioko arduradunen eskutik. Herritarren osasuna zaintzea funtsezko egitekoa da, eta estamentu guztien ahalegin koordinatua eskatzen du. Guztiok gara borroka horren parte.

aurkibidea

3 editoriala

6 berriak

19 TicketBAI

24 aholkularitza juridikoa

26 iragarkiak

30 elkargokide

Lehendakaritza eta Zuzendaritza
Iban Arrien Celaya
Koordinazioa:
EFEO-eko Komunikazio, Publizitate eta Protokoloko Batzordea
Gauzatzea eta Maketazioa
J&JCreativos
Argazkigintza
ORO
Argitalpena
Euskadiko Fisioterapeuten Elkargo Ofiziala
Hiruhilabeteko argitalpena
190 ale

Ale honetan argitaratutako edukien kopia osoa edo partziala egitea debekatuta dago, EFEO-ko Gobernu Batzordeko idatzizko berariazko baimena eduki gabe.
Elkarberria eta EFEOa ez dira iragarkien eduki eta irudien arduradunak egiten, ezta argitaratutako artikuluen edukiena, beraien egileen iritzia delako.

Elkargokieei emateko dohainezko alea

Fisioterapiaren Mundu Eguna

Long Covid edo Covid iraunkorra leloarekin, 150 profesional eta erasandako baino gehiago aritu ziren patologia horri buruz



Irailaren 10ean, Fisioterapiaren Mundu Eguneko ekitaldi nagusia egin zuen EFEOk eta *Long Covid* edo Covid iraunkorrari buruzko jardunaldi jendetsua antolatu zuen, gaixotasun hau arintzeko tratamenduen berri emateko eta paziente batzuen eskutik ezagutzeko zer ondorio dituen.

Iban Arrien EFEOko presidenteak osasun-arloko profesionalak eta biktimak omentzeko egindako hitzaldi hunkigarri baten ondoren, jardunaldiari hasiera eman zitzaion Narda Murilloren hitzaldi batekin: "Covid ondorengo pazienteentzako programa Institut Guttmann-en". Hitzaldian pazienteek izan ditzaketen ondorioak azaldu zituen Nardak, baita bere erakundetik ondorio horiei nola heltzen ari diren ere.

Jarraian, Mikel Aranok eta Aranatze López de Muniainek, ESI-Arabakoek, azaldu zuten pandemia garaian fisioterapeutek ingresatutako pazienteen esku jarri dutela haien jakituria eta ESI honetan talde berezi bat ere sortu dutela, *Long Covid* pazienteak errekuperatzeko.

Jardunaldia amaitzeko, Sonia Bilbao eta Fátima Gottwald-en lekukotza izan genuen, *Long Covid* dutenak biak ere, eta gaixotasun honen ondorioz eguneroko bizitzan dituzten zailtasunak azaldu zituzten.

Era berean, eta beren esperientziaren barruan, adierazi zuten pazienteentzat baliabiderik ez dagoela, askotan patologia ezagutzen ez delako, Covid iraunkorraren aurkako borrokan ikusi ahal izan dutenez.

Jardunaldia amaitzeko, bai hizlariek bai parte-hartzaileek gaixotasun hori duten pazienteen orainari eta etorkizunari buruzko ikuspegiak partekatu zituzten, eta fisioterapiak haien ongizateari laguntzeko dituen aukerak ere aipatu ziren.

Amaitzeko, Euskadiko Fisioterapeuten Elkargo Ofizialak eskerrak eman nahi dizkie bertaratuei eta hizlariei, ekitaldi honetan parte hartu zutelako; izan ere, parte-hartzerik gabe jardunaldiak ez zuen zentzurik izango.

Fisioterapiaren Munduko Eguneko hurrengo edizioetan berriro ere aurtengo denak gurekin izatea espero dugu, aurten bertaratzerik izan ez dutenez gain.

Komunikazio Batzordea

EFEOk Euskadiko Fisioterapia Sarien VI. edizioa antolatu du

Sariak abenduko Asanblada Orokorrean banatuko dira

Urte eta erdiz pandemian murgilduta egon eta iazko edizioan euskal fisioterapia osoari aitortza egiteko parada izan ondoren, Euskadiko Fisioterapeuten Elkargo Ofizialak Fisioterapiako Euskadi Saien seigarren edizioa ospatuko du.

Euskal Herrian Fisioterapiak aurrera egin dezan lanean ari diren profesionalak aitortu eta balioan jarri nahi dira sari horiekin.

Fisioterapiako VI. Euskadi Sariek kategoria hauek izango dituzte:

- Fisioterapeuta hoberena
- Fisioterapiari buruzko komunikazio-proposamen hoberena
- Fisioterapiako ibilbide profesional hoberena
- Ikerketaren saria
- Karrera-amaierako lanik hoberenaren saria
- FisioLagun saria

Azpimarratu behar da edizio honetan sari berri bat sartu dela, FisioLagun, Fisioterapiaren irudia, zerbitzuak eta kalitatea sustatu dituzten pertsonak, erakundeak, enpresak eta antolakuntzak saritzeko, diziplinaren garapenari egin dioten ekarpenagatik. Sari berri honekin Fisioterapiaren bidez alor guztietan osasuna sustatu eta hedatzeko estrategien perfekzionamendua aitortu nahi da.

Oraingo honetan sariek zenbateko hauek izango dituzte:

- Fisioterapeuta hoberena
  500 euroko balioa duen prestakuntza-beka
- Fisioterapiari buruzko komunikazio-proposamen hoberena
  Aitorpen saria eta diploma
- Fisioterapiako ibilbide profesionala
  Aitorpen saria eta diploma
- Ikerketaren saria
  1.000 euro eta 500 euroko prestakuntza-beka
- Karrera-amaierako lana
  300 euroko prestakuntza-beka
- FisioLagun saria
  Aitorpen saria eta diploma

Gehienez ere 7 kideko epaimahai profesional batek erabakiko ditu irabazleak; 2021eko abenduaren 5ean erabakiko ditu eta abenduaren 18an emango da horren berri, Elkargoko Ohiko Batzarrarekin bat etorriz.

Irabazleei aldez aurretik jakinaraziko zaie, berariazko gutun baten bidez; lanarekin batera erantsitako gutun-azal itxiko zerrendan agertzen den egileari edo egileetan lehenengoari igorriko zaio gutuna.

Sari hauetan gurekin bat egitera animatu nahi zaituztegu, Fisioterapiako profesional askok egiten duten lan bikaina ikusgai jartzea baita xedea.

Komunikazio Batzordea

FISIOTOPAGUNEAK

2008ko azaroan diseinatu eta garatu zuen Elkargoak Barne Araudia eta hor konfiguratu zen lantalde zientifiko-teknikoak izena eman zitzaien haien proiekzioa.

Izaera eta interes profesionaleko jarduera eta zerbitzu kolektiboak sortzeko eta bultzatzeko konpromisoaren ondorioz egin zen taldeko lan-proposamen horiek diseinatzearen aldeko apustua, etengabeko prestakuntzari, ikerketa sustatzeari eta garapen tekniko-profesionalari lotutako ekintzak garatzeari behar bezalako arreta korporatiboa emateaz gain eta horiek guztiek duten balioa bultzatzeaz gain.

Pediatriaren, Akupunturaren eta Animalien Fisioterapiaren alorrean interesa zutenak ere garapen horretan interesatu ziren, baina ez zen lortu epe luzera taldeak eratzea edo jarraipena izatea, batzuetan interes-faltagatik gertatu zen hori, eta beste batzuetan, erakundearen funtzionamenduarekin ezadostasunak zeudelako eta erakundearekin zuten loturaren ondorioz.

FISIOTOPAGUNEAK proiektua sortu da hasierako asmo hura aberastu eta hedatu asmoz. Helburu nagusitzat dugu, batetik, interes profesionaleko estrategia eta zerbitzu kolektiboak bultzatzeko konpromiso bizia jasotzea, eta, bestetik, garapen kolektiboko puntu eta espazio komunak aurkitzeko denok dugun nahiari erantzun egokia ematea. Lehenengoa, gure estatutu-artikuluetatik dator zuzenean; bigarrena, gure konpromiso eta ikaskuntzatik; konpromiso eta ikaskuntza horiek iazko lehen hiruhilekoan "Fisioterapiaren barruan paradigma aldatzeko foroa" izenekoan egindako topaketen ondoriozkoak dira, nahiz eta Covid-19 pandemia larriaren ondorioz zapuztu egin ziren.

Izenak berak esaten duen bezala, FISIOTOPAGUNEAK proiektatzearen asmoa da gure arteko espazioak eta/edo topaguneak aktibatzea, sustatzea eta aberastea.

Hau da, egiazko "gizarte-sareak" sustatzea, elkar ezagutu dezagun, elkarrekin proiektuak partekatu ditzagun eta profesional gisa haz gaitezen banaka eta taldean.

Espazio IREKIAK dira, jatorrizko lantalde haien porrota eragin izango zuen esparru zurruna alde batera utzi da, eta helburuen eta lan-estrategien diseinua, garapena edo orientazioa taldearen autonomiatik datoz, bi premisa bakarren pean: erantzukizun profesionala eta garapen kolektiboa.

Parte hartzeko hamaika "formula" eta proposamen daudela uste dugu: esparru fisioterapeutikoari dagozkion prozedura, abordatze, ezagutza-arlo eta gaitasunen inguruko topaguneak; eztabaidarako, kritikarako eta elkarrizketa hutserako espazioak; etengabeko prestakuntzarako espazioak, ezagutzak eta esperientziak partekatzeko eta zabaltzeko; zientziarekin, ikerketarekin, irakaskuntzarekin eta mundu akademikoarekin lotutako lantaldeak; taldeko esku-hartzea aberasgarria izango den proiektu partikularrak garatzeko eta/edo handitzeko espazioak; Elkargoaren erakundearekin partekatutako zonak esku-hartzerako eta/edo buruzagitzarako; eta xede bera duten beste hainbat aukera: banako bidearekin alderatuz gero taldeko esperientziak duen balio erantsia identifikatzea.

Proiektu honetan EFEOk bidea erraztea nahi dugu, egon daitezkeen behar, ideia eta proiektuen kudeaketa, hedapena eta garapena ahalbidetzeko. Eskaini beharreko bitartekoen artean, Elkargoaren Aurrekontu Orokorretatik zuzenean eratorritako aurrekontu-partidak onartzea egokia litzatekeela uste da, interes kolektiboko ekintzak eta proposamenak garatu ahal izateko. Partekatutako buruzagitza-ereduaren aldeko proposamen irmoa, aurrekontu-sail baten norabidea eta inbertsioa – pixkanaka gero eta handiagoa izatea espero dugu – lagungarriak izan daitezen Elkargoaren funtzionamendu eta garapen esparru berriaren zirriborrorako, gainbegiratze arduratsuarekin baina askatasunez eta independentziaz garatzeko behar adinako autonomiarekin.

Datozen egunetan proiektuari buruzko zehaztasun gehiago jasoko dituzue, baita ekimen honetan parte hartzeko jarraibideak ere. Ordura arte, Zuzendaritza Teknikoarekin harremanetan jar zaitezkete (r.romero@cofpv.org), sortzen zaizkizuen zalantza guztiak argitzeko edo, besterik gabe, ekimenean parte hartzeko interesa duzuela jakinarazteko.

Zuzendaritza Teknikoa

Fisioterapia eskuak eta goiko gorputz-adarrak lantzeko

EFEOk antolatutako jardunaldia honek arrakasta handia izan zuen eta 300 profesional baino gehiagok hartu zuten parte.

Paziente asko eskuko, eskumuturreko, ukondoko eta sorbaldako lesioekin etortzen zaizkigu, eta lesio horien konplexutasuna eta mugak kontuan hartuta, EFEOn ikusi genuen beharrezkoa zela lesio horien tratamendu fisioterapeutikoaren garrantziari buruzko jardunaldia egitea.

Horregatik, joan den urriaren 16an lesio horien ikuspegi terapeutikoei buruzko jardunaldia egin zen.

Alor honetako lau aditu izan genituen jardunaldian eta patologia desberdinez duten jakituriaren berri eman ziguten.

Hasteko, “Behatzetako lokadurak edo bihurrituak? Protokolo-proposamenak” hitzaldia eman zuen Belén Sanchok; goiko gorputz adarretako lesioetan 15 urte baino gehiagoko esperientzia duen fisioterapeutak, besteak beste, lesio hauentzat nazioartean jada aurkeztu den protokolo baten berri eman zigun.

Jarraian, Andoni Ormazabalek, eskalatzearen ondoriozko lesioetan adituak, eskalatzaileen artean ikerketa bat egiten ari dela esan zigun, lotutako lesioen iraupena zenbatesteko eta kirol honetako maila eta taldeetan dauden arrisku-faktoreak aztertzeko. “Behatzetako polea-lesioen balorizazioa, errehabilitazioa eta berregokitzapena” aurkezpena egin zigun eta diziplina honekin zerikusia duten lesio zehatzak azaldu zizkigun.

Atseden labur baten ondoren, Nerea Pradak, sorbaldako patologiaren ariketa terapeutikoaren graduondoko irakasleak, “Errotatzaileen zorroarekin zerikusia duen etengabeko mina: teoriatik praktikara” hitzaldia eman zuen.



Jardunaldia amaitzeko, Álvaro García Gimbernat Cantabria Unibertsitateko (Kantabriako Unibertsitatea) irakasle elkartuak, “Zer egin ukalondoko alboko mina duen pazientearekin?” hitzaldia eman zuen, eta ukalondoko patologiaren adibideak eskaini zituen.

Asko izan ziren jardunaldian parte hartu zuten 300 lagunek baino gehiagok egindako galderak; estatu osotik etorri ziren, baita atzerritik ere, eta luzatu egin zen jardunaldia. Argi dago, kolektiboaren intereseko gaia jorratu zela.

Eskerrak eman nahi dizkiegu partaide guztiei eta, batez ere, parte hartu zuten lau hizlariei.

Komunikazio Batzordea

Agenda NAGUSI 2021. Zikloa: "Artatutako eta zaindutako adinekoak"

EFEOk parte hartu du "EAEko egoitzetako adinekoak artatzeko eredua" eztabaida foroan.

Eusko Jaurlaritzaren Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak parte-hartze prozesuaren garapenari eutsi dio **AGENDA Nagusi 2021** edizio berriarekin. Adinekoekiko gobernantza publiko-sozialerako eredua da, eta, arduradun nagusiaren hitzetan, "haren helburua da parte-hartze sozialerako kultura sortzea, baita erakundeengan eta erabaki prozesuak garatzeko moduetan konfiantza handiagoa jartzea ere".

Parte-hartze ziklo berriak, "Artatutako eta zaindutako adinekoak" izenekoak, **EAEko egoitzetako adinekoak artatzeko eredua** izan du hausnarketaren ardatz.

"Hausnarketa partekatuaren prozesu" horren barruan, hainbat tresna metodologiko gehitu dira, ezagutza kolektibo baliagarriak bideratu eta elikatzeko, erabaki hobeagoak eta errealitatearekin bat datozenak hartzeko oinarri gisa. Topaketa eta eztabaiden testuinguru horretan, EFEO, Euskadiko egoitzetako arretan parte hartzen duen fisioterapeuten kolektiboaren ordezkari gisa, lanbide arteko eztabaida-foro batean parte hartzera gonbidatu zuten, eta horrela bat egin genuen egoiliarrekin, familiarrekin, batzorde adituarekin eta Euskadiko Adinekoen Batzordearekin antolatutako topaketetan.

Gonbidapenari erantzunez, eta EFEOko idazkari eta zuzendari tekniko gisa, irailaren 28an Eusko Jaurlaritzaren Gasteizko egoitzara joan nintzen, eta hiru ordu baino gehiagoko iraupena izan zuen topaketa interesgarrian parte hartu nuen. Bertan, esparru-proiektuaren kudeaketa taldearekin eta arduradunarekin topo egin nuen, baita beste osasun-kolektibo batzuetako ordezkariekin ere.

Modu berezian azpimarratu behar da egun batzuk lehenago bildutako informazioa, arlo geriatrikoarekin lotutako lankide fisioterapeutek egoera errealari buruzko iritziak, esperientzia partikularrak eta ezagutzak trukatzeari esker lortua, oso lagungarria izan bainuen partekatzeko, aberasteko eta informazio "ofiziala" diziplina eta kolektibo honen errealitatearekin kontrastatzeko esku-hartze arlo batean, hau da, Euskadiko egoitzetako arretaren arloan, zeina askotan gutxietsi eta mespretxatu egiten den. Beraz, eskerrak eman nahi dizkiegu gure laguntza eskaerari zuen lankidetza eskuzabalarekin erantzun diozuen pertsona guztioi!

Horrez gain, modu formalean aurkeztutako analisi-dokumentua lankide fisioterapeutek partekatutako datu eta esperientzien bilketaren emaitza izan zen; arreta-arlo horrekin lotuta egon eta Elkarteak parte hartu duen azken bi topaketa profesionaletan bildu eta partekatutako datuak eta esperientziak dira. Honako hauek dira zehazki: "*Abordaje de Fisioterapia en las Residencias*", Euskadiko Fisioterapeuten Elkargo Ofizialak antolatutako etengabeko prestakuntzako ikastaroa, Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politika Saileko Mendekotasunaren eta Desgaitasunaren Arretako Zuzendaritza Nagusiarekin lankidetzan (2021eko martxoaren 24 eta 31 eta apirilaren 14a, 22a eta 29a), eta EHUren udako ikastaro bat, "*Fisioterapia activa como palanca de cambio durante el envejecimiento*", Euskal Herriko Unibertsitatearekin batera antolatua (2021eko irailaren 16a).

Topaketan partekatu ziren puntu eta ohar garrantzitsuenetako batzuk jaso ditut jarraian, eta gure esparru-dokumentuan azpimarratutako kezkak argudiatu eta babesteko oinarri gisa baliatu nituen:

FISIOTERAPIAREN BALIOA AZPIMARRATZEA ADINEKOEN ARRETA SOZIOSANITARIOAN

"Sophie Heywood doktoreak (Australiako Melbourneko St. Vincent ospitalea), Antonio Cuesta Vargas doktoreak (Malagako Unibertsitatea), David Beckwée doktoreak (Belgikako Bruselako Unibertsitatea), Malagako Unibertsitateko Klinimetria Ikerketa Taldeko kideek, Deustuko Unibertsitateko irakasleek, Gimbernat Unibertsitateko irakasleek, Uliazpi Fundazioko kideek, Zahartzaroa erakundeko kideek eta Matia Fundazioko kideek parte hartu zuten aurretik adierazitako jardunaldi eta tailerretan, eta, arlo gerontologikoko aditu gisa, bat datoz fisioterapia eta haren kolektibo profesionala adinekoen arreta integralaren diziplina arteko taldeetan sartzerakoan,

zalantzarik gabe".

"Zientziak datu eta emaitza argiak ematen ditu fisioterapiako esku-hartzeen eraginkortasun eta efizientziari buruz hainbat jarduketa-eremutan. Beraz, emaitza onak lortzen ditugu fisioterapiaren esku-hartzetik prozesu eta egoera kliniko askotan, zahartze-prozesuekin lotuta: "nahasmendu neurodegeneratiboetara egokitutako ariketak", "uretako lanaren garrantzia eta emaitzak adinekoekin", "hauskortasuna eta sarkopenia kontzeptuak", "arnasketako muskulu ahultasunari buruzko lana", "nahasmendu uroginekologikoak jorratzea", "prozesu kliniko onkologikoei buruzko esku-hartze fisioterapeutikoa adinekoetan", "balorazio-teknologia berriak fisioterapian", "terapia-proposamenak dantza tradizionalarekin", "korrikaren eta artrosiaren mitoak ezeztatzen", "adinekoetara egokitutako ariketak osasun mentalaren arloan", "adinekoen mugikortasun lagundurako tresna teknologikoak erabili eta garatzea muturreko mugiezintasun-egoeran"..."

BARRUKO ETA KANPOKO ALDAKETA KONTZEPTUALAREN BEHARRA

"Fisioterapia, diziplina eta osasun-zientzia gisa, aldaketa-prozesuan dago: paradigma-aldaketa hori ebidentzia zientifikoaren emaitza ugariek eragin dute, zalantzarik gabe, eta orain arte aurreikusi ez diren esparru eta jorraketa-eremuetara orientatu gaituzte."

"Arlo geriatrikoa ez da gelditu aldaketa kontzeptual horietatik kanpo. Zientziak fisioterapia arretaren eraginkortasuna eta balioa erakutsi ditu zahartze-prozesu osoan zehar. Esku hartzeko estrategia bakar eta pasiboak eta jorraketak alde batera utzi behar ditugu gure esku-hartzeen protagonismoa geureganatzeko hautemandako arazo fisikoaren erantzun gisa, zahartze aktibo eta osasuntsua sustatzeko aldaketa-palanka gisa, eta adinekoen artean bizi kalitatea sustatzeko".

"Fisioterapia "arazo fisikoen eskuzko eta esku-oheko jorratze" gisa identifikatzea ohikoa da, baina hedatua egoteak ez du esan nahi okerra, erredukzionista eta XXI mendeko errealitate profesionaletik aldendua ez denik".

"Zahartze-prozesua jarraitua da. Muturreko mugiezintasun-egoeren aurreko uneetako fisioterapia-arretaren faltak hauskortasun-egoerak azkartu eta okertzen ditu, eta inork nahi ez duen prozesua itzulezin bihurtzen du".

"Azterketa zientifikoek itzulgarritasun-potentzial argia ematen dute sendotasun-hauskortasun espektroaren fase jakin batzuetan. Bilakaera kaltegarri bat lehengoratzeko aukera horrek berez justifikatuko luke esku-hartze fisioterapeutiko bat gomendatzea adinekoen mugikortasun sindromea agertu aurreko aldietan, prebentzioaren eta gure esku-hartzearen eraginkortasuna eta efizientzia sustatuz eta balioetsiz lehen mailako arretaren esparruan".

"Beharrezkoa da arreta-esparru horri lotutako profesionalen etengabeko prestakuntza, egungo ezagutza partekatuz eta hedatuz, eta esku hartzeko aldaketak eta estrategia berriak onartuz".

FISIOTERAPIA PERTSONA ARDATZ DUEN ARRETA-EREDUAN (ACP) INTEGRATZEA EGOITZA-ARRETAN

"Aho batez identifikatzen dira fisioterapiako kolektiboaren eta balioen diziplina eta pertsona ardatz duen arreta eredua. Eguneroko bizitzako testuinguruan norberaren ingurunearen gaineko kontrola sustatuz eta norberaren zainketen banakako proposamenean aktiboki parte hartuz premia, itxaropen eta gaitasun oso desberdinei erantzunez zaintzak eman nahi dituen arreta profesionalizatua eskaini ahal izateko ideia arreta-esparrua eta arreta-erronka da eta oso ongi uztartzen da diziplina eta kolektibo honen paradigma berriekin. "Egunerokotasunaren rol terapeutikoa" eta eskainitako zainketen indibidualtasuna nekez ager litezke gure errealitatetik urrun osasun-diziplina gisa.

"Gainera, beste jarduera-eremu batzuk aztertzen baditugu (Neuroerrehabilitazioa, Pediatria, Kirola, Traumatologia), XXI. mendeko arreta fisioterapeutikoko prozesuak ez dira nortasun horretatik eta indibidualizazio-esparru horretatik urruntzen. Banakako balorazioak proiektatzen dira, non biografia,

aurrekariak, zaletasunak, ingurune sozio-familiarra, itxaropenak eta lehentasun partikularrak aztertu eta artatu egiten diren, elkarrekin zainketa-plan bat eta adostutako abordatze bat proiektatzeko; zainketa-agertoki bat sustatzen eta ezartzen da, pertsonaren ingurune naturala errespetatu eta zainduko duena, etxeko nahiz gertuko jorraketak eta jorraketa naturalak lehenetsiz; norberaren burua zaintzea sustatzen da, jarrera eta portaera desegokien aldaketa sustatzeko arrisku-faktore gisa ager daitezkeen kausak eta/edo aldagaiak aztertuta (osasunari dagokionez), eta pedagogia eta prozesu anatomofisiologikoen ezagutza tresna terapeutiko osagarritzat hartuta".

"Ez da beharrezkoa zuzendaritza honi adieraztea fisioterapiari eta haren profesionalei emandako balioa eta protagonismoa, arreta-taldeetan nahitaez txertatutako agente eta diziplina diren aldetik, eta hori arreta-eredu honekin lotutako eredu teorikoetan, dokumentuetan eta proiektuetan islatzen da. Azpimarratzekoa da "Egoitza batean hauskortasun egoeran dagoen adinekoarengan ardaztutako arreta eredua" dokumentuan deskribatutako esperientzia pilotua. Dokumentua 2011n argitaratu zen, eta Maria Institutu Gerontologikoak diseinatu zuen (https://www.matiainstituto.net/eu/argitalpenak/egoitza-batean-hauskortasun-egoeran-dagoen-adinekoarengan-ardaztutako-arreta-eredua)".

ACP EREDUAREN ESPARRU TEORIKOA vs ERREALITATEAREN ANALISI SUBJETIBOA

Bikaintasun-esparru hori kontuan hartuta, eta gure paradigma profesionalarekin guztiz bat etorrita, EFEOk lau profesional fisioterapeutaren esperientzia eta inpresio partikularrak kontsultatu eta jaso ditu, arlo horretan adituak eta/edo egoitza-arloan esperientzia handia dutenak. Horiei buruz hitz egingo dugu, eta jasotako iritzi batzuk hitzez hitz adieraziko ditugu, proiektu honetan gure esperientzia partekatzeko baliagarri izan daitezkeenak, gonbidatzen gaituen hausnarketa kolektiboko prozesua aberastuz eta errealitatera egokitutako erabaki hobeak hartzea errazten eta bideratzen duten baliozko elementuak emanez, etengabeko hobekuntzako proiektu global honetako gainerako protagonista eta eragileekin batera.

Jasotako kezkak eta iritziak:

- Erreferentzia-eredu bikaina, baina agertoki teorikoak

  "ACP eredua zuzena da maila teorikoan, baina zaila da praktikan jartzea".

  "Denbora falta zaigu gure lana ondo egin ahal izateko".

  "Arreta-eredu horrek gure errutinak malgutzea eta senideak zaintza- eta arreta-sarean integratzea eskatuko luke, eta hori ezinezkoa da lan egiten dudan egoitzaren antolaketa testuinguruarekin".

  "Adierazi didazun ereduak arreta eta zaintzara bideratzen du bizikidetza-unitate txikietatik eta etxeko inguruneetatik: nire egoitzako ingurune fisiko-arkitektonikotik oso urrun dago".

  "Protokoloek, funtzionamendu-inertziek, ezarritako ordutegiek eta ingurune fisikoak ezinezko egiten dute lortu nahi den arreta-eredua".

- Giza baliabideen defizita

  "Ez dago langile nahikorik kalitatezko arreta emateko".

  "Zaila da fisioterapeuta batek 100 egoiliar artatzea".

  "Gaur egun egoitzetan dagoen gutxieneko ratioa urria da; nire ustez, ratio horiek handitu egin beharko lirateke, kalitatezko ACP bat ahalbidetuz, eta ez ACP teoriko bat".

  "Zainketak ez daude oso bereizita, plantillen defizit larriaren, gutxi doitutako ratioen, eta abarren ondorioz".

  "Identifikatutako behar bereziei erantzun nahi izatea, eredu teorikotik bideratzen den bezala, materialki ezinezkoa da dauden erabiltzaile/fisioterapeuta ratioekin".

  "Pertsonak beren arreta-planen definizioan eta praktikan sartzea ezinezkoa da dauden plantillekin eta zerbitzuaren eta arreta fisioterapeutikoaren urritasunarekin".

  "Eredu teoriko horren arabera, ezinezkoa da egoiliarrak beren gaitasun funtzionalera, beharretara, itxaropenetara eta gure arreta-planen gustu pertsonaletara egokituta sartzea". Hemen bizi diren 150 pertsona baino gehiagorentzat ni bakarrik nago".

  "Aldundiaren eskakizunek, batez ere langile-eskakizunek, handiagoak izan behar dute itundutako enpresei begira".

- Lurralde-asimetria abian jartzean eta garatzean

  "Alde handiak daude lurraldeen artean, baita udalerrien eta egoitzen artean ere".

  "Ezagutzen ditut eredu teorikotik hurbilago dauden Gipuzkoako beste lankide batzuen esperientziak. Gustatuko litzaiguke planteamendu horietara hurbiltzea".

- Fisioterapia-kolektiboaren eta -prestazioaren bigarren mailako protagonismoa

  "Nire ustez, talde profesional garrantzitsua gara zentroetako

egoiliarrentzat, familiarrentzat eta langileentzat; hala ere, bigarren mailako aktoreak gara "goikoentzat".

"Diziplina anitzeko ingurune hierarkizatuetan mugitzen jarraitzen dugu": Ez gaituzte kontuan hartzen erabaki garrantzitsuak hartzeko prozesuetan".

"Ezin dut ebaluazio fisioterapeutiko bat proiektatu, ezta lan-programa bat definitu ere. Mediku geriatrak bideratuta datorkit".

"Ez dut parte hartzen zainketa-planaren diseinuan, edo hori gutxitan edo noizean behin egiten dut. Ebaluazioa Geriatrak egiten du, eta ez didate kontsultatzen".

"Inbertitzeko eta bitartekoak eskuratzeko proposamenak behin eta berriz baztertzen dizkidate. Ez dut parte hartzen egoitzako proiektuetan eta aldaketa globaletan".

"Bide batez, hitzarmenaren arabera, psikologoek, kategoria profesionalagatik, guk baino gehiago kobratzen dute, eta graduaren iraupena berdina da bi kasuetan".

- "Arretarik gabeko" eremuak

"Gustatuko litzaidake aldizka laguntzaileekin bildu ahal izatea prestakuntza lantzeko. Ohean dauden pertsonen posturak hobetzeko, aulkian dauden pertsonen esertzeko modua kontrolatzeko, ibilera errazteko, erorikoak izateko arrisku-egoerak identifikatzeko, eta abarrerako ezagutzak eman ditzaket".

"Haien familiek zainketetan eta fisioterapia-planean parte har lezakete eta parte hartu beharko lukete. Ez dut haiekin egoteko aukerarik".

"Materialki ezinezkoa egiten zait adineko bakoitzaren erortzeko arriskuak zehatz-mehatz eta bereziki aztertzea. Fisioterapeuta gisa, arrisku-faktore horri eraginkortasun handiagoz erantzuteko aukera izan beharko nuke".

"Banakako arreta ezinezkoa da denbora-faltagatik. Taldeko saioak egiten ditut, pertsona gehiago artatu ahal izateko".

"Ez naiz beharrezko maiztasunarekin iristen mugiezintasun larria duten pertsona guztiei arreta ematera. Gaitasun fisiko handiagoa duten pertsonekin gehiago jarduteko eta lan egiteko joera dago".

"Inbertsio teknologikoa ia hutsala da. Fisioterapia tradizionala eman nahi dute, oinarrizko baliabide tradizionalak dituzten terapia eta ariketetan oinarritua".

"Ez dago gehiegizko sedentarismo-denboren benetako kontrolik, ezta denbora horien gaineko jarduketa eraginkorrik ere".

"Hasteko, soldata eta ordutegiak hobetu beharko lirateke (ez da logikoa lan berdina eginda Foru Aldundiko fisioterapeutek askoz gehiago kobratzea); azken batean, baldintzak aldatu beharko lirateke".

- Berrikuntza, proposamenak, erronkak, iradokizunak, nahiak...

"Berrikuntzak egin behar dira kudeaketan. Eredu teorikotik praktikara igarotzeko ausardia. Adinekoari bizi-kalitate handiagoa ematen dioten giza arretarako ereduak".

"Egoiliarren % 80 ohean egoten dira; ez dira esertzen, ez dira zutik jartzen eta, noski, ez dira ibiltzen. Nik ezin ditut behar bezala artatu. Zikloergometroen antzeko teknologia berrietan inbertitzeak euren mugikortasun-beharrei erantzuteko aukera emango luke".

"Adinekoa egoitza batera sartzen denean, mendekotasun-maila altua duelako izan ohi da. Fisioterapia aurreko hauskortasun-mailetan dauden pertsonen arretan sartzeak hobetu eta luzatu egin lezake euren egoera, baita egoitzan sartzeko beharra atzeratu ere".

"Hauskortasun ertaineko pertsonei etxeko arreta emanez gero, ez litzateke sarrera goiztiarrik egongo egoitzetan".

"Ondo orientatutako ariketa fisikoak hauskortasun-irizpide sorta handi baten itzulgarritasun-prozesuak errazten ditu. Hala ere, ez dira garatzen arreta soziosanitarioko politikak etapa horietan fisioterapia txertatzeko".

"Etxeko arreta fisioterapeutiko mistoa "aurrez aurrekoa eta birtuala" txertatzea tresna eraginkor eta efizientetzat har liteke, mendekotasun handiagoa erakusten hasten direnean adinekoei bizi-kalitatea emateko. Haiek egoitzetan sartzea atzeratuko luke, eta arreta-kostuak aurreztuko lituzke".

"Lehen mailako arretaren eta prebentzioaren esparruko estrategiak artatu eta indartu beharko lirateke. Arazoak tratatzeko sartzen gara, parte hartu beharko genukeenean, eta kontuan hartu behar gaituzte horiek ekiditeko".
"Jorratzen ez diren (edo oso gutxi jorratzen diren) hainbat alor terapeutiko daude egoitza-

eremuan: arnas fisioterapia, paziente onkologikoak, osasun mentala, eta abar".

"Epe luzeko zaintzarik eta arretarik eza etxean bertan, egoitzan sartu aurretik".

- Gure protagonismoaren autokritika

"Agian prestakuntza-defizita, eguneratzeko gogoa. Inguruneak eta dinamikek motibazioa kentzen dute, baina horrek ez luke justifikatu behar".

"Aldaketak gutxi errazten dituzten lan-inertzietan murgiltzen gara".

"Aitortzen dut ez dudala ezagutza sakonik erorketak ebaluatzeko eta prebenitzeko estrategietan. Horren azterketan eta lan espezifikoan sakontzeak kalitate handiagoa emango lioke nire esku-hartzeari".

"Erritmoek eta lan-kargek aldaketarik ez proposatzera garamatzate. Motibaziorik gabe nago, gutxi kobratzen dut".

"Aldaketak proposatzeaz nekatu nintzen, eta errutinak mantentzen ditut. Hobekuntza-ekintzak proposa nitzake, baina ni bakarrik nago eta nekagarria egiten zait".

Bilera ona izan zen, giro oso adeitsuan, eta espero dugu politika soziosanitarioen arduradunek gogoan hartzea, aukera emango baitigu ate berriak irekitzeko, aberasteko eta gure diziplina Euskadiko adinekoen egoitza-unitate guztietan ahalik eta ondoen integratzeko, eta elkarrekin parte hartzeko ildoei eusteko, gure burua identifikatu ahal izateko eta, protagonista gisa, arreta eremu horretan erabakiak hartzeko orduan ekarpenak egiten jarraitzeko. Deigarria eta azpimarratzekoa da, nolanahi ere, eztabaida-foroan zehar hiru lurraldeetako erizainen kolektiboko ordezkariek eta psikologiako kolektiboko ordezkariek gure diziplinari eta gure lanari adierazi zizkieten maitasuna, balioa eta aintzatespena. "**Maite zaituztegu, eta faltan botatzen zaituztegu ez zaudetenean. Adinekoen egoitzak asko irabazten dute zuekin, eta adinekoek behar zaituztete**". Espero dugu Sailak eta foru erakundeek hori kontuan hartzea.

Beste kolektibo batzuk ez etorri izana ere deigarria izan zen.

Zuzendaritza Teknikoa

Ezkerretik eskuinera:
Mª Pilar Lecuona Ancisar (Gipuzkoako Erizaintza Elkargo Ofizialeko presidentea), Maider Garamendi (Saileko teknikaria), Beatriz Gázquez (AGENDA Nagusiren koordinatzailea), Blanca Echazarreta (Arabako Erizainen Elkargo Ofizialeko batzordekidea), Roberto Romero (EFEOko zuzendari teknikoa), Mª José García Etxaniz (Bizkaiko Erizaintza Elkargoko presidentea), Ainhoa Eguren Andrés (Bizkaiko Psikologia Elkargoko zuzendari teknikoa).

Hipoteka-gastuak berreskuratu

Euskadiko Kontsumitzaileen Federazioko kabinete juridikoaren jardueraren zati bat banku-erreklamazioei buruzkoa da; zehatz esateko, hipoteka-maileguaren eskritura formalizatzean kontsumitzaileek ordaindutako hipoteka-gastuak berreskuratzeari buruzkoa, Auzitegi Gorenaren 705/2015 epaiaren arabera.

200 demanda baino gehiago aurkeztu dira, eta epai guztiak demandatzaileen aldekoak izan dira; ondorioz, bere garaian ordaindutako zenbatekoak eta dagozkien berandutze-interesak berreskuratu dituzte.

Intrusismo profesionalaren aurka Elkargoarekin egindako kanpainarekin gustura gaudenez, Euskadiko Fisioterapeuten Elkargo Ofizialari zerbitzu hau eskaini nahi diogu, egoki iritziz gero elkargokide guztiei zabaltzeko.

Zerbitzua eskuratzeko elkargokidea izan behar da eta 60,00 euro ordaindu behar dira aldi bakarrean. Letraduen, abokatuen eta prokuradorearen gastuak Federazioren gain joango lirateke, eta epaian lortutako ezer ez litzateke kobratuko.

Informazio zehatzagoa nahi izanez gero, jarri gurekin harremanetan posta elektronikoz: eke@ekeconsumidores.eus Telefonoz: 656701180; 9:00etatik 13:00etara.

Euskadiko Kontsumitzaileen Elkargoa

Formación para Profesionales

ESCUELAS UNIVERSITARIAS GIMBERNAT-CANTABRIA
www.eug.es

#masqueunaescuela

MÁSTER UNIVERSITARIO EN AVANCES EN NEURORREHABILITACIÓN DE LAS FUNCIONES COMUNICATIVAS Y MOTORAS
(Acreditado por la ANECA) 7ª Edición
Modalidad: semipresencial
10 seminarios de noviembre 2021 a mayo de 2022

MÁSTER UNIVERSITARIO EN FISIOTERAPIA DEL DEPORTE Y READAPTACIÓN A LA ACTIVIDAD FÍSICA
(Acreditado por la ANECA) 3ª Edición
15 seminarios de septiembre 2021 a junio de 2022

- **Fisiopatología y Abordaje de la Articulación Temporomandibular**
- **Dolor Neuromuscular y su Abordaje con Fisioterapia Invasiva**
- **Gimnasia Abdominohipopresiva. Nivel 1**
- **Principios de Exploración, Tratamiento y Manejo de los Trastornos Neuro-músculo-esqueléticos**
- **Bases de la Alimentación, Nutrición Humana y Dietética: Aplicación en Fisioterapia**
- **Fisioterapia del Periparto**
- **Fisioterapia en Disfunciones Digestivas y Coloproctología**
- **Dolor y Sistema Nervioso Periférico en Paciente Neurológico**
- **Fisiosexología**
- **Nutrición y Dietética Aplicada, Soporte Vital para el Rendimiento Deportivo**
- **Fuerza, Movilidad y Ejercicio Terapéutico en Neurorrehabilitación**

EUGimbernat @EUGimbernat

C/ Aurelio García Cantalapiedra, s/n
39300 Tanos - Torrelavega (Cantabria)
Telf. 942 801 650 - 942 801 648
fisio.tor@eug.es

Mugikortasunaren astea

EFEO Mugikortasunaren Europar Astean Gasteizen.

Irailaren 18an EFEOk Mugikortasunaren Europar Astean hartu zuen parte Gasteizen. Kanpaina horren helburua da arduradun politikoak eta herritarrak sentsibilizatzea hirian autoa modu irrazionalean erabiltzeak osasun publikoarentzat eta ingurumenarentzat dituen ondorio kaltegarriez eta garraiobide iraunkorragoak erabiltzeak dakartzan onurez, hala nola garraio publikoak, bizikletak eta oinezko joan-etorriek.

Hori dela eta, Elkargoak karpa bat jarri zuen Fisioterapiako profesionalek herritarrak aholkatzeko runningari, ibilketa nordikoari eta bizikletari buruz, ingurumena babesteko jarduera bikainak izateaz gain.

Goiz osoan zehar hainbat kontsulta egin ziren hiru diziplina horiei buruz, Gorka Urtaran Gasteizko alkatea ere etorri zen, eta gure kideek horien onurak azpimarratu zituzten; era berean, kirol horiek behar bezala egiteko aholkuak eman zituzten, lesiorik egon ez dadin.

Bestetik, eskerrak eman nahi dizkiegu gure kide Ivan Armentia, Gonzalo Ochoa eta Iñaki Galatzeri, ekitaldi honetan gure bozeramaile izateko prest agertu direlako.

Komunikazio Batzordea

Fisioterapia aktiboak erabat alda dezake zahartze-prozesua

Fisioterapiak askotariko onurak ditu adinekoentzat: muskuluak indartzea, elastikotasuna areagotzea, antsietatea eta estresa murriztea, osasun mentala hobetzea, patologia batzuei aurrea hartzea edo lo egiten laguntzea, besteak beste.

Bizi-ohitura osasungarriak izatea eta norberaren gaitasunetara egokitutako ariketa fisikoa egitea onuragarria da modu osasuntsuan zahartzeko. Hori horrela, adinean aurrera egin ahala, fisioterapiaren zeregina funtsezkoa da; izan ere, adinekoen gaitasun fisikoa hobetzen du eta minak eta gaixotasunak gainditzen laguntzen die.

Fisioterapiak askotariko onurak ditu adinekoentzat: muskuluak eta hezurrak indartzen ditu; elastikotasuna, indarra, oreka eta malgutasuna areagotzen ditu; antsietatea eta estresa murrizten ditu; osasun mentala hobetzen du; lo egiten laguntzen du; zenbait patologia saihesten ditu, hala nola gehiegizko pisua; eta pazienteak bere lokomozio-gaitasunetan konfiantza handiagoa izatea ahalbidetzen du.

Horrez gain, adinekoei zuzendutako fisioterapiaren bidez, min baten jatorria identifika daiteke, lesio baten larritasuna balora daiteke edo pazientearen mugikortasuna mugatzen duten faktoreak zein diren asma daiteke. Ahalmen diagnostiko hori funtsezkoa da halako arazoei konponbide egokia bilatzeko.

Prestakuntza espezifikoa UPV/EHUn

Ildo horretan, irailaren 16an, Euskadiko Fisioterapeuten Elkargo Ofizialak Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatearekin batera antolatutako "Fisioterapia activa como palanca de cambio durante el envejecimiento" online uda-ikastaroan hartu zuen parte. Jardunaldi horretan 60 fisioterapeutak baino gehiagok hartu zuen parte eta 12 hitzaldi egin ziren. Horietan, hizlari adituek gaiari buruzko informazio eguneratua eman zuten eta balioa eman zieten terapia aktibo fisikoak adinekoentzat dakartzan onurei, fisioterapiaren hainbat esparrutan.

Ikastaroaren helburua izan zen erreferentziazko topagune bat sortzea zahartzearen arloan lan egiten duten eta esparru horretan prestakuntza jaso nahi duten fisioterapeutentzat. Horrez gain, osasun-zientzien, kirolaren zientzien eta jarduera fisikoaren arloetako gainerako profesionalei fisioterapiaren bidez esku hartzeko zenbait programa ezagutarazi nahi izan zitzaizkien, zahartze osasuntsua sustatu ahal izateko dimentsio arteko ikuspegi batetik. Azken batean, xedea izan zen fisioterapia gizartera eta administrazio publikoetara gerturatzea, zahartze-prozesuaren etapa guztietan bizi-kalitatea bermatuko duten politiketan lan egiteko eta bizi-itxaropen egokia eskaintzeko helburuarekin.

